

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5533

1466/2024 EBAZPENA, urriaren 25ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Pablo José Luis Busca Ostolaza jauna izendatzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Emergentsietako zuzendariorde koordinatzaile nagusiaren lanpostua betetzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendarinagusiaren irailaren 24ko 1354/2024 Ebazpenaren bidez (2024ko urriaren 7ko EHAA, 195. zk.), Osakidetzako Emergentsietako zuzendariorde koordinatzaile nagusiaren lanpostua betetzeko egindako deialdia aztertu da.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak aurkeztutako merezimenduen arabera baloratu ere. Hala, aurkeztutako dokumentazioa kontuan izanik, balorazio-batzordearen ustez, Pablo José Luis Busca Ostolaza jauna aproposa da deialdiko lanposturako, eta bertan jarduteko trebakuntza egokia du.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Pablo José Luis Busca Ostolaza jauna Osakidetzako Emergentsietako zuzendariorde koordinatzaile nagusi izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian.

Bigarrena.– Izendapen honek 2024ko azaroaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 25a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.